

Iridioaren mintzoa

Meteoritoa eta dinosauroen akabantza

Kepa Altonaga

Upaingoa, 43

978-84-9172-223-6


2021. urtea - 128 or. - 13x19 cm

12,00 €

Bitaino idazle izurtzarrak esandakoaren kontra, ez zegoen euskaldunik Hiroshimako bonba atomikoa jaurti zuten B-29en eskifaietan. Euskaldunik ez, baina bai egon zen bonbaren gibelondoak aztertutako zituen zientzialari ospetsu bat, gerora 1968an Fisikako Nobel saria irabaziko zuena eta 1980an plazaratuko zuena meteorito-inpaktuaren hipotesia, zeinak piztu baitzuen gaur arte dirauen kontrobertsia zientifikoa: meteorito batek suntsitu omen zituen dinosauroak orain dela 65 milioi urte.

Iridio elementu kimikoaren kontzentrazio anomalo batean oinarrituta dagoen arren, hipotesia oso simplea da ulertzeko. Puntu bi ditu. Lehenaren arabera, meteorito gigaerraldi batek jo zuen Lurra. Bigarrenak dioenez, inpaktu osteko ingurune-baldintza gaiztoek eragin zituen suntsipen masiboa, supituki. Paleontologoek iritziz ostera, dinosauroak ordurako suntsituak zeuden, milioika urteko gainbehera gradual baten ondotik.

Kepa Altonagak ardatz horren inguruan txirikordatu du *Iridioaren mintzoa*, baina ohi bezala, gure koordinatuetara, gure parametroetara ekarri ditu kontakizuna eta gogoeta. Aixerrrotako amilburuetatik abiatuta, era kilikor batean eramango gaitu hara eta hona denboran eta espazioan. Egizu txonbo orrialdeotan, Domingo Agirrek Algorriko ur meteoritikoetan bezala!



Kepa Altonaga
(Loiu, 1958)

Biologia ikasketak EHU. Zoogeografia, Zoologia, eta Biologiako Kontzeptuak eta Metodoak irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. 1978tik aurrera Udako Euskal Unibertsitateko kidea da. UZEI, Elhuyar eta Euskaltzaindiarekin kolaboratu izan du. CAF-Elhuyar Merezimendu Saria jaso zuen 2016 urtean euskarazko zientzia eta teknologiaren kulturaren egindako lanarengatik.

Idatzitako liburuen artean:

Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006), *Darwin geurean* (Juan Zelaia Saiakera Saria; Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa • Bixtiak: Asiskok* (Pamiela, 2011), *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015), *Patagoniara Hazparnen barrena* (Euskadi Literatura Saria, saiakera arloan; Pamiela, 2017), *Duvoisin kapitainaren malura* (Pamiela, 2018).

